

OSOKO BILKURA AKTA

Eguna: **2014-07-02**
 Bilera mota: **OHIKOA**
 Hasera ordua: **19:00**
 Bukaera ordua: **19:20**

Bertaratutakoak

Talde politikoa: **Bildu (EA-Alternatiba)**

Galder AZKUE EIZMENDI

Nora URBIZU AROCENA

Juan Luis IRAZUSTA DÍAZ

Miguel M^a UZCUDUN BASTERARGUI

Urko ARIN USANDIZAGA

Laura SANTOS JAUREGUI

Nagore ETXEBERRIA OTEGI

Talde politikoa: **EAJ - PNV**

Ibon ARIZNABARRETA URDAMPILLETA

Talde politikoa: **PSE-EE (PSOE)**

M^a Luisa ARIJA SOUTULLO

Bitarteko Idazkaria

Alazne GARMENDIA TXURIO

Villabonan, goian adierazitako egun eta orduan, Galder AZKUE EIZMENDI Alkatearen lehendakaritzapean, alboan izendatu diren Zinegotzi Jaun-Andreak eta Alazne GARMENDIA TXURIO bitarteko udal Idazkaria bertaratu direlarik, Rosa M^a ARREGUI OLOZAGA, Gorka LIZASO PÉREZ, Nagore PUYADENA URCOLA eta Xabier AZCOLAIN GARCIARENA zinegotziek ezin etorria adierazi dutelarik, udaletxeko Batzar Aretoan Udalbatza Osoa bildu da egun honi dagokion osoko bilkura lehenengo deialdian egiteko xedez, eta ondorengo gaiak aztertu dira :

LEHENA. Aurreko bilkurari dagokion akta onartzea (2014ko ekainaren 4koa).

Aho batez onartu da aurreko bilkuraren akta (2014ko ekainaren 4koa).

BIGARRENA. Informazio-batzorde iraunkorren osaketa aldatzea.

2011ko abenduaren 1eko Udalbatzak, besteak beste, batzorde informatzaileen osaketa aldatzeko erabakia hartu zuen. Orain, beharrezkoa suertatzen da zenbaitetan osaketa aldatzea, beraien funtzionamendua bermatzeko.

Alde batetik, gizarte politika, migrazio eta berdintasuneko batzordeburu Alkatea bera izatea proposatzen da, orain arte izendatua dagoen Gorka Lizaso Pérez zinegotziak ezin diolako aurre egin ardura horri, arrazoi pertsonalak medio.

Bestalde, komenigarria ikusi da, batzordeen funtzionamendua ez geldiarazteko, titularren ordezkioak izendatzea, kasu hauetan EAJ-PNV udal taldearen proposamena barneratuta:

Batzorde informatzailea	Egungo titularra	Ardura	Proposatutako ALDAKETA
Hirigintza eta zerbitzuak	Miguel M ^a Uzcudun Basterargui	Batzordeko zinegotzi titularra	Rosa M ^a Arregui Olozaga ORDEZKOA : Miguel M ^a Uzcudun Basterargui



Batzorde informatzailea	Egungo titularra	Ardura	Proposatutako ALDAKETA
	Nagore Puyadena Urcola	Batzordeko zinegotzi titularra	Ibon Ariznabarreta Urdampilleta ORDEZKOA : Nagore Puyadena Urcola
Ogasuna, pertsonala, garapen ekonomikoa eta enplegua	Nora Urbizu Arocena	Batzordeko zinegotzi titularra	ORDEZKOA : Rosa M ^a Arregui Olozaga
	Xabier Azcolain Garciarena	Batzordeko zinegotzi titularra	Ibon Ariznabarreta Urdampilleta / ORDEZKOA: Xabier Azcolain Garciarena
Garapen jasangarria eta landa ingurunea	Rosa M ^a Arregui Olozaga	Batzorde-burua	ORDEZKOA : Nora Urbizu Arocena
	Nagore Puyadena Urcola	Batzordeko zinegotzi titularra	Ibon Ariznabarreta Urdampilleta / ORDEZKOA: Nagore Puyadena Urcola
Euskara	Nora Urbizu Arocena	Batzorde-burua	ORDEZKOA : Rosa M ^a Arregui Olozaga
Kultura	Nora Urbizu Arocena	Batzorde-burua	ORDEZKOA : Rosa M ^a Arregui Olozaga
	Gorka Lizaso Pérez	Batzordeko zinegotzi titularra	ORDEZKOA : Galder Azkue Eizmendi
	Xabier Azcolain Garciarena	Batzordeko zinegotzi titularra	Ibon Ariznabarreta Urdampilleta / ORDEZKOA: Xabier Azcolain Garciarena
Gizarte politikak, migrazioa eta parekidetasuna	Gorka Lizaso Pérez	Batzorde-burua	BATZORDE-BURUA: Galder Azkue Eizmendi

Horiek horrela gaia bozkatu da eta aho batez, erabaki da:

1. Udalbata osatzen duten talde politiko desberdinek informazio-batzorde iraunkorren osaketan aldaketak proposatu dituzte. Horiek aintzat hartuta, horrela osatuta gelditu dira aipatu batzordeak:

Batzordea	Kideak
1. Hirigintza eta zerbitzuak	Galder Azkue Eizmendi (BILDU) - Batzordeburua Rosa M ^a Arregui Olozaga (BILDU) / ORDEZKOA: Miguel M ^a Uzcudun Basterargui (BILDU) Ibon Ariznabarreta Urdampilleta (EAJ-PNV) / ORDEZKOA: Nagore Puyadena Urcola (EAJ-PNV) María Luisa Arijá Soutullo (PSE - EE / PSOE)
2. Ogasuna, pertsonala, garapen ekonomikoa eta enplegua	Galder Azkue Eizmendi (BILDU) - Batzordeburua Nora Urbizu Arocena (BILDU) / ORDEZKOA: Rosa M ^a Arregui Olozaga (BILDU) Ibon Ariznabarreta Urdampilleta (EAJ-PNV) / ORDEZKOA: Xabier Azcolain Garciarena (EAJ-PNV) María Luisa Arijá Soutullo (PSE - EE / PSOE)
3. Garapen jasangarria eta landa ingurunea	Rosa Arregui Olozaga (BILDU) - Batzordeburu / ORDEZKOA: Nora Urbizu Arocena (BILDU) Juan Luis Irazusta Díaz (BILDU) Ibon Ariznabarreta Urdampilleta (EAJ-PNV) / ORDEZKOA: Nagore Puyadena Urcola (EAJ-PNV) María Luisa Arijá Soutullo (PSE - EE / PSOE)
4. Euskara	Nora Urbizu Arocena (BILDU) - Batzordeburua / ORDEZKOA: Rosa M ^a Arregui Olozaga (BILDU) Ibon Ariznabarreta Urdampilleta (EAJ-PNV) María Luisa Arijá Soutullo (PSE - EE / PSOE)



Batzordea	Kideak
5. Kultura	Nora Urbizu Arocena (BILDU) - Batzordeburua / ORDEZKOA: Rosa M ^a Arregui Olozaga (BILDU) Gorka Lizaso Pérez (BILDU) / ORDEZKOA: Galder Azkue Eizmendi Ibon Ariznabarreta Urdampilleta (EAJ-PNV) / ORDEZKOA: Xabier Azkolain Garciarena (EAJ-PNV) María Luisa Arija Soutullo (PSE - EE / PSOE)
6. Gizarte politika, migrazioa eta parekidetasuna	Galder Azkue Eizmendi (BILDU) - Batzordeburua Laura Santos Jauregui (BILDU) Ibon Ariznabarreta Urdampilleta (EAJ-PNV) María Luisa Arija Soutullo (PSE - EE / PSOE)
7. Hezkuntza, gazteria eta Kirolak	Urko Arin Usandizaga (BILDU) - Batzordeburua Laura Santos Jauregui (BILDU) Ibon Ariznabarreta Urdampilleta (EAJ-PNV) María Luisa Arija Soutullo (PSE - EE / PSOE)

2. Ebazpen hau udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hilabeteko epean jendaurrean jarritz.

HIRUGARRENA. Herritarren Parte-Hartzeari buruzko araudia onartzea.

Alkateak gaiaren aurkezpena egin du lehenik, prozesu arrakastatsu eta anitza izan dela azpimarratuz. Alderdi politikoei bere jarrera positiboa eskertu die, egindako ekarpenak ere eskertuz. Kolore politiko guztiek partaidetza prozesu honetan parte hartu izanak, blindaje berezia ematen dio araudi honi. Historikoa deritzo pausu hau ematea, Villabonarentzat demokrazian sakontzea dakarrelako. Oposizioko udal taldeei ere lantresna berri bat eskaintzen die honek.

M^a Luisa Arija zinegotzi andreak hitza hartu du eta esan du berandu datorrela, baina ongi egina dagoela aitortu behar duela.

Honenbestez, azterturik Herritarren Parte-Hartzeari buruzko Araudia, eta horri buruz 2014ko ekainaren 10ean Partaidetzako Batzorde Informatzaileak eman duen diktamena.

Kontuan hartuta Udalbatzak eskumena duela bere kompetentziako Ordenantzak eta Araudiak onartzeko eta akordio honen xede den Erregelamenduak indarreko legedia betetzen duela,

Bozkatu da eta, aho batez, hau erabaki da:

1. Herritarren Parte-Hartzeari buruzko Araudiari hasierako onarpena ematea, eranskin gisa doalarik.
2. Informazio aldi bat irekitzea Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz, eta interesatuei entzunaldia ematea 30 egunez Udalbatzak ebatziko dituen erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen. Erreklamaziorik ez balego, Arautegia behin betikoz onartutzat joko da.

ERANSKINA

HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO ARAUDIA

Zioen adierazpena

Araudi honen xedea da Amasa-Villabonako herritarren parte-hartze demokratikoari bide ematea eta Villabonako Udalaren gardentasuna eta irekitasuna bultzatzea. Era berean, araudi honen bidez Villabonako Udalak Amasa-Villabonako herritarrei udalgintzan eta herrigintzan parte hartzeko aukeren eta jarraibideenberri eman nahi die.

Villabonako Udalak ordenantza honetan arautzen diren parte hartzeko eskubideak bermatzen direla sustatuko du, horretarako oztopo izan daitezkeenak gainditzeko neurriak hartuko ditu eta sustapen lan horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu.

Halaber, sustatuko du pertsona elkarteetan eta taldeetan biltzea Amasa-Villabonako sare soziala indartu eta interes orokorreko ekimenak garatzeko; aldi berean, gizartean egoerarik txarrean dauden pertsona eta taldeak elkartzea eta immigranteen parte hartzea sustatuko ditu.

Villabonako Udalak Amasaren herri izaera berezia ere aintzat hartuko du eta Amasako herritarren parte hartze bereizari ere lekua egingo dio araudi honetatik erator daitezkeen parte hartze gune eta egiturei bide emanez.

Udal Gobernuaren eskumenen baitan, araudi honetan aitortutako eskubideak arretaz babestuko ditu Villabonako Udalak eta eskubide horiek errespetatzeko erantzukizuna helaraziko die udal langile eta agintariei.

Udalaren konpromiso hori demokrazian sakontzen lagunduko duen parte hartze sistema sortu eta finkatzeko asmo sendoaren baitan kokatzen da. Asmo horrekin bat etorri, Villabonako Udalak parte hartze ekimen plurala eraman du aurrera araudi hau bera diseinatzeko eta aberasteko eta, era berean, kolore ideologiko guztietako herritarren parte hartzea sustatuko du araudiaren betetze mailaren jarraipena egingo duen taldean.

Amasa-Villabonako herritarrak

1. artikulua.- Amasa-Villabonako herritarrak

1. Amasa-Villabonako herritar da, edozein nazionalitate duela ere, biztanleen udal erroldan inskribatuta dagoen pertsona oro.
2. Horrez gain, araudi honen ondorioetarako, eta organo eskudunak berariaz hala erabakitzen duenean, aurrez egoki arazoituta, bertan araututako zenbait eskubide eta betebeharrak 16 urte baino gehiago dutenei zabalduko zaizkie.

Parte-hartzeari buruzko eskubideak

2. artikulua. Parte hartzeko eskubidea

1. Pertsona oro du tokiko gai publikoen kudeaketan parte hartzeko eskubidea, dela zuzenean, dela herritarren elkarteetan edo parte hartzeko organoen eta bitartekoen bitartez, indarrean dagoen legerian eta araudi honetan ezarritakoari jarraiki.
2. Araudi honen arabera, parte hartzeko eskubideak, herri kontsulta edo erreferenduma salbuetsita, udal honen edo bere erakunde publiko eta sozietateen gai eta jardueren inguruko interes legitimoa duen pertsona oro balia dezake.
3. Herri kontsultako edo erreferendumezko eskubidea soilik Amasa-Villabonako hautesle erroldan inskribatuta dauden eta botoa emateko eskubidea ukatua ez duten pertsonak erabili ahal izango dute. Hala eta guztiz ere, justifikatutako arrazoiengatik, Udalak kontsultak egin ahal izango ditu, interes legitimo bat izanik, beren jarduera ekonomikoa Amasa-Villabonan burutzen dutenen parte hartzearekin, delako proposamenak eragiten dienean. Era berean, kontsultagaiaren arabera, Villabonako Udalak eskubide hau hedatu ahal izango du 16 urtetik gorako herritarrengana.

3. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea

1. Pertsona oro, dela pertsona fisikoa dela juridikoa, indibidualki edo kolektiboki, eskubidea du udal jarduera eta zerbitzuen informazio zabal eta objektiboa jasotzeko, indarrean dagoen legerian araututakoaren arabera udal artxibo publikoetarako sarbidea izateko eta Udalak ezarritako informazio orokorreko bitarteko guztiak erabiltzeko.
2. Udalak eskubide hori erabiltzeko aukera emango du eta informazio orokorreko bideak sortuko ditu edonork egin ditzakeen informazio eskaerei erantzuteko; eskaerak egiteko muga bakarrak legeek ezarritakoak izango dira, bereziki haurrak eta gazteak babesteko eskubideei, pertsonen intimitaterako eskubideari edo herri segurtasunari buruzkoak.
3. Interes publikoko gaiak direnean udalerrian bizi den herritar orori igorriko zaizkio udal erabaki eta xedapenak eta, beharrezkoa denean, aldizkari ofizialetan argitaratuko dira. Aipatutako erabakiak eta xedapenak erabilera komuneko leku publiko eta pribatuetan argitaratuta ere ezagutaraziko dira.
4. Herritarrei ahalik eta informazio gehien emateko, Udalak hartutako garrantzizko erabakien laburpenak iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko ditu. Halaber, maiztasun jakin batekin, buletin bat (Amavi) argitaratuko da udal informazio garrantzitsuenarekin eta, beharrezko balitz, gai zehatzen baten inguruko aparteko informazio orriak argitaratuko ditu Udalak, herritarrei bidaltzeko.
5. Villabonako Udalak helbide elektronikoen zerrenda bat sortuko du, hala eskatzen duten herritarrei atal honetan adierazitako informazioa igortzeko. Herritarrek posta elektronikoen zerrenda horretan egoteko eskaera egiteko eskubidea izango dute, Osoko Bilkuraren eta gobernu kontseiluaren aktak, Udalaren bandoak, udal plangintzako behin betiko onartutako erabakiak eta herritarren parte hartzeko prozesuei buruzko dokumentazioa jasotzeko. Posta elektronikoen zerrenda horren erabilera datu pertsonalen babeserako legea betez egingo da eta herritarrak eskatutako informazioa helarazteko soilik erabiliko da.
6. Beste edozein informazio idatziz eskatu beharko da. Eskaeran, eskatzailearen datuak (izena, abizenak, nortasun agiri edo pasaportearen zenbakia, jakinarazpenetarako helbidea eta modua), bere izenean edo norbaiten ordezkari gisa egiten duen eta zer nolako informazioa kontsultatu nahi duen adieraziko ditu. Eskaera kolektiboa baldin bada, eskatzailearen datuak emateaz gain, kolektiboa osatzen duten eskatzaile guztiek eskaera sinatu beharko dute eta sinadura horren ondoan horietako bakoitzaren izen-abizenak adierazi beharko dira. Informazio eskaera izapidetzen ari den espediente bati buruzkoa bada, informazio hori eskuratu ahal izateko, eskatzaileak interesduna izan behar du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, herritar ororen sarbiderako eta agerraldirako eskubidea bermatuko da hirigintzako edo ingurumeneko gaietarako buruzko espedienteetan eta, oro har, ekintza publikoko printzipioa nagusi den gai guztietan. Dokumentu idatzi, grafiko edo euskarri informatikoetan bildutako informazioa bada, kopia eskatu ahal izango da. Halaber, pertsona fisiko edo juridiko oro du udal organo erabakitzaileek hartutako erabaki guztien ziurtagiriak lortzeko eskubidea. Eskaturiko dokumentazioa, 30 eguneko epean helaraziko zaio eskatzaileari. Hala ere, epe hori atzeratzeko arrazoiak baleude, erantzuteko epea 15 egun gehiagoz luzatu ahal izango da.



7. Informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeak ez du eragotziko izaera pertsonaleko datuei buruzko legeria betetzea eta pertsonen intimitatea errespetatzea. Halaber, ezin izango da erabili Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 30. artikulua 5. atalean aipatutako espedientei buruzko informazioa eskatzeko.
8. Herritarrek eskubidea dute Villabonako Udalaren Osoko Bilkuretara joateko. Bilera horien gai zerrenda udalaren webgunean eta iragarki taulan argitaratuko da eta posta elektronikoz igorriko zaie Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan inskribatutako elkartei eta posta elektronikoen udal zerrendako kideei. Villabonako Udaleko batzordeetara joateko, berriz, herritar interesdunak aurrez eskaera egin beharko du eta eskatzaileak jorratu beharreko gaiarekin interesa azaldu beharko du (ikus 8. artikulua).

4. artikulua. Entzuna izateko eskubidea

1. Herritarrek eskubidea dute alkateak edo Alkatezaren eskuordetzea duen zinegotziak har ditzan, hitzordua eskatzeko prestatutako prozeduran ezarritako ordutegian, eskaera egiten denetik 15 lan eguneko gehieneko epean; bidezko arrazoiren bat bada tarteko, 10 lan egunez luzatu ahal izango da epea. Lehentasuna izango dute interes legitimo eta zuzena duten prozeduren edo udal jardueren izapidetze prozesurako entzunaldia eskatzen dutenek.
2. Halaber, herritar eta herritarren elkarte orok du prozeduren izapidetzean edo interes legitimoren bat duen udal jardueren burutzean entzuna izateko eskubidea. Eskubide hori administrazio espedienteak 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuta edo Udalaren ekimenez egindako deialdiaren bidez erabili ahal izango da, edo herritarren intereseko gaiak joratzeko egindako herri proposamenaren bidez.
3. Udalerriko biztanleek edonori zabalduko bilera publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, udal eskumeneko gaien inguruko informazioa jaso eta iritzia emateko. Alkateak deituko ditu bilera horiek, bere ekimenez edo Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan inskribatutako elkarte edo taldeek edo sektoreetako mahaiek (Ados! mahaiek) edo auzoko edozein kontseiluk eskatuta. Halaber, udalerriko bizilagunen %5 baino gehiagoren sinadurekin egindako eskaeraren bidez ere egingo da deialdia.

5. artikulua. Eskariak egiteko eskubidea

1. Pertsona orok, indibidualki edo kolektiboki, eta Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan inskribatutako elkarte orok du eskubidea udal gobernuari bere eskumenekoak diren gaietarako buruzko eskaerak egin edo udalaren jardueri buruzko azalpenak eskatzeko. Eskubide hori zuzenbidean baliozkoa den eta eskatzailearen nortasuna eta eskaeraren xedea era frogagarrian jasota uzten dituen edozein bitartekoren bidez erabili daiteke.
2. Eskaera horien artean, keak, iradokizunak edo proposamenak egon daitezke eta eskaerak Udalaren herritarren arretarako zerbitzuan edo Udal Erregistroan edo iradokizunen postontzian aurkeztuko dira. Udalak ezarritako bitarteko elektronikoa edo telematikoa ere (webgunea, e-posta...) erabili ahal izango dira. Eskaera kolektiboek eskatzaileen nortasuna egiaztatze bidea eman behar dute.
3. Udalak eskaera jaso duela jakinaraziko du, gehienez 10 eguneko epean, eta izapidetzeko onartuko du, betiere honako kausaren bat ematen ez bada:
 - a) eskatzaile fisiko edo juridikoa ez da behar bezala egiaztatu;
 - b) eskaeraren xedea ez da Udalaren eskumenekoa;
 - c) eskaera horrek berariazko izapide administratiboa du.
4. Lehen kasuan, 10 eguneko epea emango da egiaztapeneko hutsa zuzentzeko, eta, epe horren barruan hutsa zuzentzen ez bada, prozeduran atzera egin duela ulertuko da. Beste edozein arrazoirengatik onartu ez bada, ebazpen arrazoitua emango da eskaera aurkeztu denaren biharamunetik kontatzen hasita 30 eguneko epean.
5. Eskaera izapidetzeko onartzen bada, Udalak hiru hilabeteko gehieneko epean erantzun beharko dio eskatzaileari, adieraziz zer neurri hartu diren edo zer jarduera burutzea aurreikusten den.
6. Udalarri zuzentzeko aurreikusitako bitartekoez gain, iradokizunen postontziak jarriko dira udalerriko zenbait puntutan. Behar bezala identifikatutako idatziak Udal Erregistroan sarrera emanda izapidetuko dira. Ez badira behar bezala identifikatu, herritarren iritzia ezagutzeko ondorioetarako soilik izango dira kontuan.

6. artikulua. Herri ekimenerako eskubidea

1. Edonork, norbanako, taldekide edo elkartekide izan, udalari udal interes publikoko jarduera bat egiteko eskatzeko eskubidea aitortzen da; eskatzaileek bitarteko ekonomikoak, ondasunak, eskubideak edo lana jartzeko konpromisoa hartuko dute. Horiek izapidetzeko, gutxienez, udalerriko 16 urtetik gorako bizilagunen %10en babesa beharko da.
2. Udalak eredu bat prestatuko du, eta bertan argi adierazi beharko dira proposamena eta hori justifikatzeko arrazoiak.
3. Eskaera egiteko, idatzi bat aurkeztuko da argi adierazita zer jarduera eskatzen den eta eskatzaileek, hori gauzatzen laguntzeko zer bitarteko ekonomiko edo pertsonal jarriko dituzten. Idatzian, halaber, sinatzaile guztien izena eta abizena, helbidea, nortasun agiria eta sinadura jasoko dira.
4. Herri ekimen bat onartzeko, interes publikokoa dela eta herritarren ekarpenaren ezaugarriak egiaztatu beharko dira, eta Udalaren eta eskatzaileen edo haien ordezkarien artean hitzarmen bat sinatu beharko da. Hitzarmen horretan zehaztuko dira alderdi bakoitzaren konpromisoa, betebeharrak eta erantzukizunak, baita jardueraren eduki zehatza ere.
5. Halaber, pertsona fisikoek eta herritarren elkarteek Udalaren eskumen esparruko proiektu edo araudien onarpena sustatzeko eskubidea dute. Proposamen horiek, gutxienez, udalerriko 16 urtetik gorako bizilagunen %10ek edo Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeen %20k izenpetu beharko ditu; elkarte eta taldeek beren asanblada edo batzar orokorreko gehiengoaren erabakia egiaztatu beharko dute akta bidez. Ekimen horiek Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu behar dira; hala eta guztiz ere, gai horretan eskumena duen organoak ebartziko ditu eta tokiko herri kontsulta bateko proposamena eragin dezakete. Hala eta guztiz ere, proiektua edo araudia aplikatu beharreko araudian ezarritako izapideen arabera izapidetuko da.



6. Arau honetan eta aplikatu beharreko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, herri ekimenak jendaurrean jarriko dira, gutxienez, hilabetez; iragarkiak prentsan, Udalaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
7. Epe horretan, eskatutako jardueraren bideragarritasun tekniko, juridiko eta ekonomikoari buruzko txosten bana egingo da, eta, proposamenarekin batera, Udalaren Osoko Bilkurara eramango dira, jendaurreko izapidea amaitzen denaren biharamunetik kontatzen hasita 30 eguneko epean. Bileren horretan, ekimenaren ordezkarri batek parte hartu ahal izango du, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera defendatzeko bere proposamena.
8. Inola ere ezingo dira herri ekimenekoak izan tributuak edo prezio publikoak erregulatzeko arauak.

7. artikulua. Osoko Bilkuretan proposamenak aurkeztea

1. Aurreko ataletan arautzen ez diren kasuetan, herritarrei eta Udal Erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeei aitortzen zaie Osoko Bilkuraren gai zerrendarako gaiak proposatzeko eskubidea.
2. Proposamena Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko, herritarren udal erroldan inskribatutako edonork eskatu beharko du, gutxienez, bizilagunen %5en edo Udal Erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeen %10en sinadurarekin, eta betiere, gaia ez bada azken sei hilabeteetan baldintza beretan jorratu.
3. Baldintza horiek betetzen badira, alkateak ebaziko du eskaera 15 eguneko epean, eta proposamena zein Osoko Bilkuratan eztabaidatuko den adieraziko da. Osoko Bilkura hori proposamena jaso ondorengo bi hilabeteetan egingo da, ez bada premiako kasu justifikatua. Osoko Bilkura ohikoa edo apartekoa izan ahalko da eta alkateak proposatzaileari dei egin beharko dio bizilagunek edo elkarteek Osoko Bilkuretan parte hartzeko araudi honen 8. artikuluan ezarritako baldintzetan azal dezan proposamena.

8. artikulua. Udalaren Osoko Bilkuretan eta batzordeetan parte hartzea

1. Herritarren elkarte, talde eta interesdun orok du Osoko Bilkuretan eta batzordeetan parte hartzeko eskubidea, eskaera egiten badu.
2. Eskubide hori erabiltzeko, honako baldintza hauek bete beharko ditu interesdunak:
 - a) Modu iraunkorrean parte hartu nahi badu, urtearen lehen hilabetean egin beharko du eskaera.
 - b) Intereseko gaia bileraren gai zerrendan egotea edo bileran parte hartzeko xedea proposamenak egin edo herri ekimeneko eskubidea erabiltzea edo defendatzea izatea.
 - c) Bileraren batean modu puntualean parte hartu nahi badu, Alkatetzari idatziz eskatzea, gutxienez, bilkura hasi baino egun baliiodun bat lehenago.
 - d) Eskatzailea, elkarte edo taldea bada, Elkarte eta Taldeen Udal Erroldan inskribatuta egotea edo eraturata dagoela edo jarduera aktiboa duela egiaztagarri egotea.
3. Bilkuraren buru denari dagokio hitza hartzeko txanda irekia moderatzea.
4. Eskatzaileak hamar minutu izango ditu parte hartzeko. Horren ondoren, Udaleko taldeek hartuko dute hitza eta alkateak edo zinegotzi eskudunak erantzun ahal izango du. Ondoren, erantzun txanda bat izango du eskatzaileak eta, horren atzetik, taldeen parte-hartzeak izango dira; alkateak itxiko du parte hartzeen txanda. Ondoren, bozketa egingo da.
5. Araudi honen 6 eta 7. artikuluetan aurreikusitako ekimen edo proposamenak (herri ekimenaren ingurukoak eta Osoko Bilkurarako norbanakoek edo elkarte/taldeek aurkeztutako gaien ingurukoak) oinarri dituen gairen bat aztertzen denean Udalaren Osoko Bilkuran, bertan parte hartzeko eskubidea izango du eskatzaileak.
6. Parte hartzeko eskaera ukatzeko arrazoiak egon beharko dira eta berariaz aipatu beharko dira.
7. Edonola ere, Udaleko Osoko Bilkura guztietan, gai zerrendaren amaieran, galdera-eskaerentzako txanda irekiko da, bertaraturako norbanakoek zein elkarteetako ordezkariek egoki derizteten adierazpenak edo galderak egin ditzaten. Bilkurako buruari dagokio hitz egiteko txanda hori neurtzea.
8. Txanda irekian egindako parte hartzeak bileraren aktan jasoko dira.
9. Udaleko ohiko Osoko Bilkurak herritarren parte hartzea erraztuko duen egun eta ordutegian egingo dira; lan egunetan, arratsaldean.

9. artikulua. Biltzeko eskubidea

Pertsona orok du Udalaren lokal, ekipamendu eta espazio publikoak erabiltzeko eskubidea, biltzeko eskubidea gauzatzeko, beti ere bileren lokalon interes publikokoa baldin bada. Baldintza bakarrak espazioaren ezaugarriek, udal ordenantzek eta herri administrazioen ondarea erregulatzeko araudiak ezarritakoak izango dira, baita jendea ibiltzen den lekuetan egiten diren bilerak edo manifestaldiak direnean bete beharreko baldintzak betetzea ere; manifestaldiak Gobernuaren Ordezkaritzaren eskumenekoak dira.

Eskatzaileak eskaera formalak egin beharko du. Eskaera orrian, bere datuak, erabilera eguna eta orduak agertuko dira, eta erabili duen tokia hartu duen bezala uzteko konpromisoa ere bai.

Herritarren elkarten eta taldeen parte hartzea

10. artikulua. Herritarren Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroa

1. Erregistro horretan inskribatzen dira jarduera eremua Amasa-Villabonan edo horren lurraldean duten elkarte edo talde egonkor eta iraunkorrak. Elkarte edo talde egonkortzat hartzen da hiru pertsona edo gehiagoko taldea, bitarteko ekonomiko edo pertsonalak komunean jartzeko konpromisoa hartzen duena, irabazi asmorik gabe, interes orokorreko helburu jakin bat lortzeko asmoz. Elkarten kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroan inskribatuta egon beharko dira.
2. Ez dira erregistro horretan inskribatzen alderdi politikoak, hautesleen koalizio edo taldeak, sindikatuak edo jarduera ekonomiko bat burutzea xede duten pertsona juridikoak.



3. Erregistroa publikoa da eta edozein interesdunek kontsulta dezake. Tresna dinamiko horrek udalerriko elkarte eta taldeen errealtateaz ezagutzeko helburu eta elkarte sarearen bilakaera aztertzen du, informazio hori Udalarari eta elkarteetara helarazi eta elkartearen eta elkarte-sarearen jarduerak sustatu eta hobetzeko politika eraginkorra egiten laguntzeko.
4. Herritarren Elkarte eta Taldeen Udala Erregistroa bakarrik izango da, udal idazkariaren mendekoa, eta datu orokorrak publikoak izango dira, beti ere indarrean dagoen legeriak ezarritako mugekin. Urtero egin eta eguneratuko da herritarren elkartearen fitxategi bat, erakundeek herritarren Elkarte eta Taldeen Udala Erregistroan inskribatu direnean edo inskripzioa berriro dutenean aitortu dituzten datu orokor individualizatuak gain, jarduerak burutzeko jaso dituzten udal diru-laguntzak bilduko dituenak. Fitxategi hori erregistroan inskribatuta dagoen eta eskaera egiten duen elkarte orori igorriko zaio.
5. Erregistroak elkartearen edo taldearen misioa edo xedea ezagutzeko aukera eman behar du, sailkapen eraginkorra egiteko.
6. Udala Erregistroan eskaera idatzia aurkezten denean bertan geratuko da erregistroan inskribatuta –hutsak zuzentzeko edo beste arazoaren batengatik eten ez bada behintzat–. Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:
 - a) Indarrean dauden estatutuen edo funtzionamendu arauen kopia. Eusko Jurlaritzaren Elkartearen Erregistroan inskribatuta ez dauden taldeak badira, beren helburu, funtzionamendu arau eta ordezkarien hautaketaren aitortpena, kide guztiak sinatuta.
 - b) Elkartearen Erregistro Orokorrean duten inskripzio zenbakia, elkartearen inskribatuta badago.
 - c) Zuzendaritza Batzordeko edo ordezkari organoko kideen izenak nahiz helbidea eta harremanetarako telefonoa egiaztatzen duen akta edo ziurtagiria.
 - d) Elkartearen helbidea eta, baldin badu, egoitzarena.
 - e) Identifikazio Fiskaleko Kodea, inskribatutako elkartearen badira.
 - f) Eskaera egiten dutenean izena emanda dituzten bazkideen kopuruaren ziurtagiria.
 - g) Urteko jardueraren programa edo memoria.
 - h) Elkartearen urteko aurrekontua.
7. Udalak ebatziko ditu inskripzio eskaerak, aurkezten direnetik 30 eguneko epean. Ebazpenak eskaera ezesten badu, arazoitu egin beharko da.
8. Taldea edo elkartearen Udala Erregistroko tipologiaren batean sailkatuko du Udalak eta interesdunari jakinaraziko dio, egoki deritzona alega dezan. Jakinarazpenaren ondorengo 15 egunetan ez bada alegaziorik aurkeztu, sailkapena onartzen dela ulertuko da. Sailkapen hori egiterakoan inskripzioa burutzeko funtsezko baldintzen bat ez dela betetzen antzematen bada, interesdunari jakinaraziko zaio, 15 eguneko epean hutsa zuzen dezan; ez bada zuzenketa burutzen, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko da.
9. Erregistroan inskribatutako elkarte edo taldeek Udalarari jakinarazi beharko diote inskripziorako oinarri gisa erabili den dokumentazioko datuen bat aldatzen bada, aldaketa gertatu ondorengo hilabeteko epean. Halaber, urtero, otsaileko azken eguna baino lehen, aurreko urtean burututako jarduerak eta ekitaldien memoria bat aurkeztu beharko diote Udalarari, baita abenduaren 31n zituzten kideen kopurua adierazi ere. Atal honetan ezarritakoa ez betetzeak suposatuko du Udalak entitate hori jarduerarik gabe dagoela jotzea eta ofizioz Udala Erregistroan baja emateko prozedura abiatzea; prozedura hori hurrengo atalean aipatzen da.
10. Udalak ofizioz baja emango die jarduerarik ez duten elkarte edo taldeei, egoera hori interesdunari jakinarazita; horrek alegazioak egiteko aukera izango du 15 eguneko epean eta, alegaziorik aurkezten ez badu, berehala baja emango zaio.
11. Udala Erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeek funtzionamendu demokratiko eta gardena dutela, eta beraien kudeaketan eta erabakiak hartzeko jardunbideetan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu beharko dute.
12. Udala Erregistroko datuei buruzko ziurtagiriak izango dira elkartearen edo taldearen inskripzioa eta izenaren egiaztatzeko balioko duten dokumentu bakarrak.

11. artikulua. Elkarte eta taldeek informazioa jasotzeko duten eskubidea

Araudi honen 3. artikuluan aitortzen den udalaren informazioa jasotzeko eskubide orokorraren kalterik gabe, Elkarte eta Taldeen Udala Erregistroan inskribatutako elkarte edo taldeek honako eskubide hauek ere izango dituzte:

- a) Udalarari emandako posta elektronikoko helbidean Villabonako Udalaren Osoko Bilkuren deialdiak jasotzea.
- b) Elkarte edo taldearen egoitzan jasotzea Udalak argitaratzen dituen argitalpen edo informazio guztiak, betiere elkartearentzat interesgarriak badira, jardueraren esparruaren arabera.
- c) Bere jardueraren esparruko udal proiektu eta ekimenen informazioa jasotzea.
- d) Dagokion sektoreko kontseiluen informazioa jasotzea.

12. artikulua. Udalaren Osoko Bilkuretan parte hartzeko eskubidea

1. Udalak aitortzen die Elkarte eta Taldeen Udala Erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeei Osoko Bilkuraren gai zerrendako punturen baten inguruko herri ekimena gauzatzeko, proposamenak aurkezteko eta ahoz parte hartzeko eskubidea, ordezkari baten bidez, erakunde horiek Udalaren erabakiak hartzeko prozedura hurbiltzeko xedez, araudi honen 6, 7 eta 8. artikuluetan araututakoaren arabera.
2. Eskubide hori erabili ahal izango dute gai zerrendako puntu hori beren jardueraren esparruko delako interesatzen zaiela justifikatzen duten elkarteek.
3. Aparteko kasuetan, eta premiazko kasu arazoituetan, Udala Erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeek Osoko Bilkuraren gai zerrendako punturen batean esku hartu ahal izango dute, honako prozedura honi jarraiki:
 - a) Ezinbesteko baldintza izango da alkateari idatzi bat aurkeztea, Osoko Bilkura hasi baino 60 minutu lehenago, esku-hartzea eskatuz eta gai zerrendako dagokion puntuko gaiaren inguruko interesa egiaztatuta.
 - b) Alkateak erabakia Osoko Bilkura hasi baino lehen jakinaraziko die.
 - c) Parte hartzeko baimena eman ondoren, elkarteko ordezkari batek gehienez ere hamar minutuz parte hartu ahal izango du, gai zerrendako puntua irakurri ondoren eta puntu horren ezaugarriak eta bozketa hasi aurretik.



13. artikulua. Biltzeko eskubidea

1. Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan inskribatutako herritarren elkarre eta talde orok du udal lokal, ekipamendu eta espazio publikoak erabiltzeko eskubidea, biltzeko eskubidea baliatzeko. Era berean, Biztanleen Udal Erroldan inskribatutako herritarrek ere izango dute ekipamendu horietan biltzeko eskubidea, interes kolektibo orokorra egiaztatzen bada. Bi kasuetan, baldintza bakarrak espazioaren ezaugarrien ondoriozkoak eta udal ordenantzetan ezarritakoak izango dira. Hala eta guztiz ere, bilera eskubidea arautzeko 9/1983 Lege Organikoan ezarritako baldintzak bete beharko dira jendea ibiltzen den lekuetan egiten diren bilerak edo manifestaldiak direnean.
2. Zehazki, Udalak erabilerako horretarako gaitutako ekipamenduak erabiltzeko aukera emango du (Udaletxea, Kultur Etxea, Subijana Jauregia, etab.). Ekipamendu horien kudeaketa elkarre eta herritarrek ahalik eta sarbide eta erabilerako zabalena izateko zehaztu beharko dira.

14. artikulua. Udalaren webgunean parte hartzeko eskubidea

1. Udalak, bere webgunean, parte hartzeko die Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan izena emanda dauden erakundeei.
2. Parte hartzearen eskaintzen diren edukia elkarre erabakiko ditu; betiere, bere ardurapean, baina giza-espazioaren urraketari bide eman gabe eta Amasa-Villabonako pertsonen eta ideien aniztasunari eta genero berdintasuneko politikari kalterik egin gabe, eta Villabonako Udalaren hizkuntza irizpideak beteta.

15. artikulua. Laguntzak edo diru-laguntzak

1. Aurrekontuek ahalbidetzen dioten neurrian, Udalak herritarren talde edo elkarten lana eta izaera indartu eta bultzatuko ditu diru-laguntzen bitartez, hurrengo puntuak zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.
2. Diru-laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak, dagokion diru-laguntza araudiak zehaztuko ditu. Araudi horrek, gutxienez, honako irizpideak hartu beharko ditu kontuan:
 - a) Elkarte edo taldea Udal Erregistroan izena emanda egotea.
 - b) Deialdiak ezarritako baldintzak betetzea.
 - c) Elkarte edo taldearen ordezkariaren gaitasuna, jardueraren interes maila, herriarenganako bideragarritasuna eta praktikotasuna, elkartearen gaitasun ekonomikoa edo beste administrazio batzuetatik jaso ditzakeen laguntzak.
 - d) Villabonako Udalak eduki ditzakeen zehar-lerroetatik (genero-berdintasuna, euskararen erabileraren aldeko neurriak, ingurumena babestekoak...) eratorri daitezkeen baldintzak betetzea.Udalak gastuen inguruko jarraipena egingo die diru-laguntzak jaso dituzten elkarre eta taldeei eta, horrenbestez, laguntza horiek eskatzeko ezinbestekoa izango da hauek aurkeztea:
 - a) Diru-laguntza eskaerarekin batera: plangintza edo proiektua eta aurrekontua.
 - b) Gastuak justifikatzeko: memoria eta fakturak.

Herritarren parte hartzerako prozesuak, organoak eta bitartekoak

16. artikulua. Parte hartzeko prozesuaren definizioa

1. Araudi honen ondorioetarako, parte hartzeko prozesua izango da honako aldi hauek guztiak biltzen dituen:
 - a) Informazio aldia: horren bitartez, eragindako herritar orori helarazten zaio parte hartzea izatea nahi den gai edo proiektuari buruzko informazioa, egoki diren teknika metodologikoak erabilia.
 - b) Eztabaida aldia: horren bitartez, egoki diren metodologiak erabilia, herritarren diagnostikoa, eztabaida eta proposamenak sustatzen dira.
 - c) Itzultze aldia: horren bitartez, parte hartzen dutenei eta herritar orori jakinarazten zaie parte hartzeko prozesuaren emaitza.
 - d) Burutzeko aldia: horren bitartez hartzen dira herritarrek erabakitakoa burutzeko beharrezko erabakiak.
 - e) Prozesua berrikusteko aldia: prozesuan zehar egingo den etengabeko berrikuspenak balio ahal izango du prozesuaren beraren diseinuan egokitzapenak egiteko.
 - f) Ebaluazio aldia: horren bitartez, herritarrek erabakitakoa eta benetan burututakoa zenbateraino bat datozen ebaluatzen da.

17. artikulua. Herri galdeketa

17.1 Oinarriak

1. Adinez nagusia izan eta Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta dagoen herritar orok du eskubidea bere interesekoak diren gaien inguruko kontsulta jasotzeko eta herri galdeketa edo erreferenduma sustatzeko. Eskubide horiek 16 urtetik gorako herritarrengana hedatuko ditu Udalak, Udaleko Osoko Bilkurak hala erabakita eta indarrean dagoen legediaren kontra joan gabe.
Herritar bakoitzak boto bakar bat eman ahal izango du herri galdeketa eta ez da onartuko inork beste inoren ordezkari izan botoa ematerik.
2. Herri galdeketa udal eskumeneko eta tokiko izaerako esparruei buruzkoa izango da eta ez toki ogasunaren inguruko gaien buruzkoa. Galdeketa galdegaiekin ezingo zaio bide eman oinarriko giza-espazioaren urraketari eta zalantza kasuetan Villabonako Udalak iritzia eskatuko die giza espazioaren inguruko Euskal Herri mailako behatokiei eta adituei.
3. Galdeketa egitea erabakitzeko, Osoko Bilkuraren gehiengo osoa beharko da eta galdeketa horrek erreferendum izaera baldin badu Estatuko organo eskudunari eskatu beharko zaio baimena.
4. Herri galdeketa Osoko Bilkurak baimendu beharko ditu, gehiengo osoz. Galdeketa proposamenaren ekimena honako hauei dagokie:
 - a) Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta dauden bizilagunei, indarrean dagoen legerian zehaztutako kopuruak sinatuta proposamena.



- b) Villabonako Udalaren Herritarren Parte Hartze Batzordeari; horren irizpena Osoko Bilkuran aurkeztu beharko da.
 - c) Alkateari, aurrez udalbatzaren Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabakia hartuta, 16 urtez gorako biztanleriaren %25k eskatzen badu herri galdeketa [sinadura bilketa hasi eta hilabeteko epean]. Eskatzaile interesdunak herri galdeketa eskatzeko sinadura bilketa egin nahi badu, horretarako Udalak propio prestatua duen eskaera agiria bete eta sarrera eman beharko dio. Behin sarrera emanda, 15 eguneko epean, bilera deituko du alkateak, sinadura bilketari noiz eta nola ekin adosteko. Sinadurak Udalak horretarako propio prestatutako orrietan bilduko dira. Orri horiek eskatzailearen esku jarriko dira; bere ardura izango da sinadurak biltzea eta Udaletxean ere sinatzeko aukera emango da. Bilketa hasi eta hilabeteko epean goian aipatutako sinadura kopurua lortu eta udaletxean sarrera ematen bazaie, eta zerrendak egiaztatu ondoren, Udalak herri galdeketa egingo du sei hilabeteko epean. Udalaren ardura izango da galdeketa antolatzea. Alkateak Osoko Bilkurara eraman beharko du ekimena, organo horrek izapidetu dezan herri galdeketa. Galdeketa egiteko erabakiak zehaztuko du galdeketa bera zein baldintzetan egingo den.
 - d) Alkateak herri galdeketa mende jarri ahal izango ditu udal eskumeneoak diren eta garrantzi berezikiotzat jotzen dituen gaiak, aurrez Osoko Bilkuraren gehiengo osoz hartuta erabakia.
5. Osoko Bilkurak galdeketa egiteko herritarren eskaera ezesten badu, ebazpenean arrazoiak adierazi beharko ditu.
6. Udalarri dagokio galdeketa egiteko izapide guztiak egitea. Villabonako Udalak erabakiko du herritar guztiei botoa emateko aukera nola erraztu: botoa emateko egunak ugarituz, boto kutxak udaletxean hainbat egunetz irekita edukiz, posta edo Internet bidezko boto ematea ahalbidetuz eta abar. Aukera horiek ahalbidetzerakoan Villabonako Udalak bermatu eta ziurtatu egin beharko du dagozkien prozedurak betetz botoa soilik dagokion erroldan dauden norbanakoek emango dutela eta soilik behin emango dutela botoa.
7. Gai bakoitzari buruz galdeketa bakarra egin ahal izango da legealdi bakoitzean. Tartean urgentziatzeko kasurik ez badago, urtean galdeketa bakar bat egin ahal izango da baina galdeketa bakoitzean galdera bat baino gehiago egin ahal izango dira (gehienez, 4 galdera).
8. Galdeketa emaitza Udalarentzako loteslea izango da, betiere galdeketa onartutako hautesle erroldaren %50 baino gehiagok hartzen badu parte eta erantzun garaileak boto guztien %50 baino gehiago jaso badu. Baldintza horiek betetzen ez badira, galdegaiari buruzko erabakia udal gobernuaren esku geratuko da.
9. Osoko Bilkurak onartuko ditu galderak, Herritarren Parte Hartze Batzordearen irizpena jaso ondoren. Galderek bi erantzun posible edo gehiago eduki ahal izango dituzte eta galdera batzuetan emandako aukerak lehenetsunaren arabera ordenatu beharko dira.
10. Herri galdeketa deialdiak eragiten du Udalak egindako galderaren inguruko informazio kanpaina bermatzea eta herritar orori aukera ematea Udaleko talde politiko eta elkarte guztien proposamen eta aukera guztiak ezagutzeko. Udalak Herri Galdeketa egitea ontzat ematen badu, 1.000 euro arteko diru-laguntza emango du kanpainarako, betiere gastua justifikatuta badago.

17.2. Galdeketa burutzeko prozedura eta baldintzak

1. Herri galdeketa burutzeko prozedurak honako izapide eta baldintza hauek bete beharko ditu:
- a) Herri galdeketa deialdia Udalaren iragarki taulan, prentsan eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea.
 - b) Udalaren Osoko Bilkurak kontsulta prozesua gainbegiratu eta kontrolatzeko organoak eratzea; organo horiek teknikariek osatuko dituzte.
 - c) Hautesleen errolda jendaurrean jartzea, gutxienez, astebetez.
 - d) Botoa posta bidez emateko aukera ahalbidetuz gero, posta bidezko boto-ematearen prozedura arautzea.
 - e) Hautesleen erroldaren inguruan egindako erreklamazioak ebaztea.
 - f) Hauteskundeetarako kolegioen kokalekua onartzea.
 - g) Herri galdeketa inguruko propaganda biltzeko eta ekitaldiak burutzeko lekuen zerrenda onartzea.
 - h) Hauteskunde mahaietako kideak hautatzeko zozketa egitea.
 - i) Galdeketa inguruko proposamen eta aukerak ezagutarazteko jarduerak egiteko epea ezartzea; gutxienez, 10 eguneko izango da.
 - j) Bozketa.
 - k) Hautesleek bozketaren egunean egindako erreklamazioak.
 - l) Behin-behineko zenbaketa. Zenbaketa aurkako erreklamazioak.
 - m) Behin betiko zenbaketa eta kontsultaren emaitzak argitaratzea.
2. Kontsulta Osoko Bilkurak onartu ondorengo 3-6 hilabete artean egingo da.
3. Kontsultak egun bat baino gehiago irauten badu, hauteskunde dokumentazioa zaintzeko beharrezko bitartekoak ezarriko dira udaletxeko Idazkaritzan.

18. artikulua. Ados! parte hartze mahaiak

1. Ados! izeneko sektore mahaiak informazioko, kontsultako, kontroleko eta proposameneko organoak dira eta Udalaren jardueraren sektore edo eremu bakoitzaren kudeaketan parte hartzeko aukera ematen diete herritarrei. Beraz, parte hartzeko gaikako organoak dira.
2. Udalaren jardueraren sektore edo eremu bakoitzeko sektore mahai bat eratu ahal izango da, Udalaren Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, nahiz eta proposamena alkateak, Herritarren Parte Hartze Batzordeak edo Elkarte eta Taldeen Udala Erregistroan inskribatuta dauden eta jardueraren nagusia sektore horretan burutzen duten elkarte edo taldeen %10ek egin beharko dute, edo legez nahitaezkoa delako egin beharko da. Parte Hartze Ados! sektore mahaiak garrantzia berezia izango du ordenantza honen eta leharkeen ekimen ororen jarraipena egiteko.
3. Sektore mahaiak, gutxienez, honako kide hauek izango dituzte:
- a) Presidentea: alkatea edo horrek dagokion eremu edo sektorearen ordezkaria ematen dion zinegotzia.



- b) Osoko Bilkuran ordezkariak duten talde politiko bakoitzeko ordezkari bat, ahotsarekin baino botorik gabe; horiek guztiek batera ez dira kontseiluko kideen guztizkoaren %49 baino gehiago izango.
 - c) Herritarren Elkarte eta Taldeen Udala Erregistroan inskribatuta dauden eta sektorearekin zerikusia edo dagokion gaietan interes berezia duten herritarren elkarteak ordezkariak.
 - d) 16 urtez gorakoak diren eta Ados! mahaiaren gaian interesa adierazten duten herritarrek, norberaren izenean. Hauek, aurreko atalean aipaturiko herritarren elkarte eta taldeen ordezkariekin batera, Ados! mahaiaren gehiengoa osatuko dute.
 - e) Beste erakunde publiko batzuetako ordezkariak, egokitzat jotzen denean.
 - f) Idazkaritza: Udaleko langile bat, bozik gabe.
4. Sektore mahai bakoitzaren behin betiko osaketa haren funtzionamenduko barne araudian ezarritakoaren arabera izango da eta dagokion sektorearen berezitasunak kontuan izan beharko ditu.
 5. Sektore mahaiaren eskumenekoak izango dira honako hauek:
 - a) Udalaren jardura eremu bakoitzaren kudeaketak eragindako pertsona edo elkarteek edo interesdunek parte-hartze zuzena izan dezaten sustatzea; horretarako informazioa, sustapenerako eta jarraipenerako beharrezko bitartekoak ezarriko dituzte Udalaren jarduren inguruan.
 - b) Elkartegintza eta Ados! mahaiaren xede den esparruan jarduten diren elkarte eta taldeen arteko lankidetzak eta koordinazioak sustatzea, publikoak nahiz pribatuak izan erakunde horiek.
 - c) Udalak mahaiaren jardura esparruan burutzen dituen jardueren buruzko aholkuak ematea:
 - c.1) Udalak aurkeztutako gaiak eztabaidatu eta baloratzea, bereziki informazioa, jarraipena eta urteko programen ebaluazioa; eta
 - c.2) proposamenak egitea.
 - d) Mahaiarentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa jasotzea Udalarengandik, eskaera arrazoitua egin ondoren.
 - e) Sektorearen inguruko azterlan, txosten eta jarduerak egin daitezten sustatzea.
 - f) Pertsonen eskubideak defendatzea xede duten udal politika eta jarduerak aplikatu daitezten sustatzea.
 6. Sektore mahaiak honako funtzionamendu arau orokor hauek izango dituzte:
 - a) Gutxienez, urtean lautan bilduko dira.
 - b) Bilera guztien aktak igorriko dizkiete mahaiko kideei eta sektore horrekin harremana duten eta Herritarren Elkarte eta Taldeen Udala Erregistroan inskribatuta dauden elkarte eta talde guztiei. Akta bilera egin ondorengo hilabeteko epean igorriko da beranduenez eta eskuragarri jarriko da udal webgunean.
 - c) Udalak dagokion sektorerako jarduren urteko plana aurkeztu beharko du sektore mahaiaren bilera bakoitzean.
 - d) Sektore mahaiaren balorazio eta proposamenak dagokion informazio batzordeari jakinaraziko zaizkio, Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartu ondoren. Ildo horretan, dagokion informazio batzordeko presidentek bileretako gai zerrendetan sartu beharko ditu Kontseiluak proposatutako gaiak.
 7. Ados! sektore mahai bat eratu ondoren, funtzionamenduko barne araudia burutuko du, bertako kideek demokratikoki adostuta, eta Osoko Bilkurak berretsi beharko du, dagokion batzordeak txostena egin ondoren.
 8. Udalak sektore mahaiaren eskura jarriko du Udalaren webgunea, bileretarako deialdiei ahalik eta hedapen zabalena emateko.

19. artikulua. Bestelako parte hartze bideak

Arau honek aipatutako gain, Villabonako Udalak erabaki dezake parte hartzeko beste mekanismo batzuk martxan jartzea betiere araudi honekin bat badatoz edo erreformarik eginarazten ez badute. Horien adibide izan daitezke hauek: inkestak edo herri galdeketa partzialak, Kontseiluak, bestelako parte hartze kanal fisiko edo digitalak...

Informazioko, arretako eta komunikazioko sistemak

20. artikulua. Herritarren parte hartzerako zerbitzua

1. Herritarren eskaerei eta kontsultei aurrez aurre, telefonoz edo telematikoki erantzuten dien udal informazioko lehen maila da. Ildo horretan, bitarteko teknologiko, antolamendu, barne koordinazio eta langile prestakuntza eta birziklatze egokia izango ditu, herritarrei emandako erantzuna azkarra eta eraginkorra izan dadin. Zerbitzuaren funtzioa eskaerak, kexak, iradokizunak, ekimenak eta proposamenak erregistratzea da, bai eta zehaztuko diren izapide administratiiboak burutzea ere. Beste administrazio batzuei zuzendutako idatziak jaso ahal izango ditu; organo eskudunei helaraziko dizkie eta interesdunari jakinaraziko.
2. Bulego horren zereginak, langileen erabilgarritasuna dela eta, Udalak dituen langileen arabera ezarriko dira; beharrezkoak diren administrazio izapideen prozesuak hobetzen saiatuko da, erabilgarri dauden aukeren arabera.

21. artikulua. Udalaren webgunea eta bestelako plataforma digitalak

1. Villabonako Udalak herritarren eskura edukiko du udal webgunea (www.villabona.eu) interes orokorreko jardueren, gobernu organoen eta Osoko Bilkuraren erabakien berri emateko, baita tokiko elkartegintza sarea eta udalerriko jarduerarik garrantzitsuenen agenda ezagutarazteko ere.
2. Halaber, bere garaian erabakitzen diren prozeduren bitartez, kontsultak eta izapide administratiiboak egin ahal izango dira. Webgunean ideiak, iritziak, iradokizunak edo udal intereseko gaiei buruzko eztabaida foroak eta antzekoak aurkezteko espazio bat sustatuko da.
3. Udal webguneko edukiei ahalik eta zabalkunde handiena eman ahal izateko Villabonako Udalak on-line sare sozialak eta bestelako plataforma digitalak ere (multimedia kanalak, e-mailak, blogak...) erabiliko ditu. Hartara, batetik, herriko sare sozialetara informazioa modu eraginkorragoan helaraziko du eta, bestetik, herritarren feedback, behar eta kezken berri zuzenagoa izango du.

22. artikulua. Tokiko komunikabideak

1. Udalak papereko edo euskarri digitaleko Udal Buletinaren (Amavi) argitalpena sustatuko du eta Amasa-Villabonako bizilagunek eta Herritarren Elkarte eta Taldeen Udal Erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeek horretarako sarbidea izan dezaten lagunduko du. Bereziki ezagutaraziko dira udal intereseko proiektu eta jarduerak, jendaurreko erakustaldien aldiak eta jardueren agenda.
2. Udalak sustatuko du udalerrian kartelak, panelak, banderak eta antzekoak jartzeko espazioak sor daitezzen, jarduera hori arautzen duten udal ordenantzen arabera, udalerriko gizarte eragileek burutzen dituzten toki intereseko jardueri publizitatea emateko.
3. Udalak, udalaren gardentasunaren bila eta herritarrei informazioa ahalik eta argien helarazteko, tokiko hedabide guztien bidezko komunikazioa ere sustatuko du, komunikabideek eskain dezaketen ikuspegi kritikoaren onurez balia daitezzen herritarrek.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA.

Udalak sustatuko du ordenantza honen aplikazioa eta araudi honen inguruko pedagogia egingo du herritarrei begira. Halaber, ordenantza indarrean jarri eta aplikazio-aldi esanguratsu baten ondoren (beranduenez urtebetera) ordenantza honen beraren balorazioa egingo du Udalean ordezkariak duten alderdi guztiekin eta Amasa-Villabonako herritar eta eragileekin, berariaz sortutako jarraipen batzorde baten (Parte Hartzean Ados! sektore mahaia) bidez.

BIGARRENA.

Parte hartzea laguntzen duten eredu, esperientzia edo sistema berriak azaltzen badira, Parte Hartze Batzordearen proposamenez, alkateak sartu ahal izango ditu, ez badute araudi hau aldatzea eragiten; araudia aldatzea eragiten badute, Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartu beharko ditu aldaketak.

LAUGARRENA. Udalaren berezko aurrekontuko kreditu aldakuntzari dagokion espedientea (5 zenbakia duena). Kreditu gehigarriak.

Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34.3. artikulua aurreikusten duena jarraiki, eta kreditu gehigarrien bitartez aldakuntzak egiteko xedapen horiek aipatzen dituzten inguruabarrak betetzen direlarik, Ogasun batzordearen proposamenez, puntu hau bozkatu eta aho batez, erabaki da :

Kreditu gehigarrien bidezko Kreditu Aldaketako 5/2014 zenbakidun espedientea onartzea, 2014rako Villabonako Udalaren aurrekontu propioarengan eragina duena, eta kapituluka ondorengo laburpena duena:

KAPITULUAK		ZENBATEKOA ORAIN	GEHIKUNTZA	BEHIN-BETIKOA
2	Ondasun korronteen eta zerbitzuen gastuak	2.100,00	8.000,00	10.100,00
6	Inbertsio errealak	0,00	52.286,48	52.286,48
		2.100	60.286,48	62.386,48

Kreditu aldaketa finantzatzeko erabiliko diren baliabide finantzarioak

KAPITULUAK		ZENBATEKOA ORAIN	GEHIKUNTZA	BEHIN-BETIKOA
7	Kapital transferentziak	0,00	20.320,00	20.320,00
8	Aktibo finantzarioak	733.643,36	39.966,48	773.609,84
		733.643,36	60.286,48	793.929,84

Udaleko Fondon Kontu-Hartzaileak, Gipuzkoako Toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauko 5.3 artikulua xedatutakoa betez, kreditu aldaketa honi dagokionean,

Osoko Bilkurari jakinarazi dio ez dela bete Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak finkatutako GASTUAREN ERREGELA eta FINANTZA IRAUNKORTASUN helburua.

Gastuaren erregela ez betetze hau 2014ko kreditu-aldaketak finantzatzeko altxortegiko gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu da.

Altxortegiko gerakina, kasu gehienetan, denboran errepikatuko ez den gasturako erabili izan da, beraz, Udalaren finantza iraunkortasuna bermatua dagoela ulertzen da.

BOSGARRENA. Iraileko ohiko bilkuraren data aldatzea.

Ikusirik Galder Azkue Eizmendi Alkate jaunak 2014ko ekainaren 26an egin duen akordio-proposamena, Udalbatzaren 2014ko iraileko ohiko osoko bilkura, salbuespenez, aste betez atzeratzeko,

Kontuan hartuta Tokiko entitateen antolaketa, funtzionamendua eta lege-araubidearen erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikulua udalbatzaren ohiko bilkuren maiztasuna Udalbatzak berak erabakiko duela xedatzen duela,

Bozkatu delarik, aho batez, erabaki da:

2014ko irailari dagokion Udalbatzaren ohiko osoko bilkura irailaren 10ean egitea, asteazkenez, arratsaldeko 19:00etan.

SEIGARRENA. Gobernu-organismoek maiatzaren 30etik ekainaren 25era bitarte hartu dituzten erabakien berri ematea (Alkatetzaren Dekretuak eta Tokiko Gobernu Batzarraren akordioak).

Gobernu-organismoek maiatzaren 30etik ekainaren 25era bitarte hartu dituzten erabakien berri eman da (Alkatetzaren Dekretuak eta Tokiko Gobernu Batzarraren akordioak).

ZAZPIGARRENA. Erreguak, mozioak eta galderak.

Arija zinegotzi andreak gai bat jarri du mahai gainean. Euskadiko Udal Legearen Aurreproiektuaren informazio publikoa ireki dela eta, udalak gaia aztertze eskatu du. Iradokizunak aurkezteko epea hilabetekoa da, eta uda sasoia da, baina komeniko litzateke udalaren jarrera zein den aztertzea. Berari iruditzen zaio, hainbeste kostatzen den legea onartzeak, lege-esparrua edo markoa argituta utziko lukeela.

Alkate jaunak erantzun dio EUDELe bere lana egin beharko duela, bere baitan dauden sentsibilitate guztiak kontuan hartuz. PPre arrazionalizazio legeak eragin du aurreproiektu hau egiteak eta alde horretatik ona izan daiteke udalen eskumen eta finantziario-bideak finkatzeko, baina ikusi beharko da legearen tramitazio parlamentarioan zehar udalen eskaerak kontuan hartzen diren.

Jarduteko besterik ezean, batzarraldia bukatutzat eman da gorago adierazitako orduan, eta nik, Bitarteko Idazkari honek, legeak adierazten dituenen oniritzira eta sinadurara jarri dut akta hau. Guztia ziurtatzen dut.-